

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

San Bizente Ikastola sozietate kooperatiboarekin urte anitzeko hitzarmena bertan behera uztea, eta beste bat izenpetzea

Bo190731A. Oiongo Udalak, 2019ko maiatzaren 21eko bilkuran, erabaki zuen, 2000ko martxoaren 31ko hitzarmena bertan behera uztea, alde biek adostuta. Hitzarmenaren suntsiarazte data 2019ko irailaren 30a izango da. Halaber, San Bizente ikastola sozietate kooperatiboarekin hitzarmen berri bat izenpetzea adostu zuen, urte anitzeko dirulaguntza zuzena arautzeko, hezkuntza itunaren moduluaren bidez finantzatuta ez dauden mantentze gastuak finantzatuko dituen. Hitzarmen horrek 2019ko urriaren 1etik 2023ko urriaren 1era arte izango du eraginkortasuna. Hitzarmenaren aurrekontu euskarria 2020., 2021., 2022. eta 2023. ekitaldietarako urte anitzeko gastuen konpromiso kreditua izango da: konpromiso kredituen egoeran 323 481001 partida sartuko da, 95.000 euroko zenbatekoarekin, 2020., 2021., 2022. eta 2023. ekitaldietan. Behin betiko onetsitako konpromiso kreditua 2019ko ekainaren 14ko ALHAOn argitaratu zen (69. alea, 01825 iragarkia).

Hori jakinarazten da Gardentasunaren, Informazio Publikoa Eskuratzearen eta Gobernu Onaren abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8 1 b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Oion, 2019ko uztailaren 31

Alkatea

EDUARDO TERROBA